**OPE** 2007 2007ko **LEP**

| KODEA | Lanpostua/k: |
|---|---|
| ***A-5071*** | ***TURISMOKO G.T.*** |

*1. ariketa. 2. proba*

| **GALDERAK** |
|---|

***Denbora, gehienez: 120 min.***

| | |
|---|---|
| EREDUA: | C |

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Kontuan izan galdera bakoitzaren balioa, eman bazaio.
- Adi egon, identifikazio pertsonalerako txartela jaso diezazuten.
- Ez ahaztu ordezkagiria hartzea (irakurketa optikorako inprimakiaren beheko ezkerreko zatia).
- Adi egon, batera grapa ditzaten irakurketa optikorako orria, azaleko inprimakia eta zure erantzun-orriak.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

| Gal. | Balioa | Galderaren idazkuntza |
|---|---|---|
| **1** | 1,00 | Zer da SCB? Zerrenda itzazu beraren jarduera nagusietako bi eta bere zerbitzuetako bi. |
| **2** | 1,00 | Zer da APCE? Zein ditu helburu nagusiak? |
| **3** | 1,00 | Zer da Turespaña? Atzerrian Turismoa Sustatzeko Helburu Planak finkatzen dituen sei jarduera-ardatzetatik, zeinen inguruan egituratzen baitira Turespañaren jarduera guztiak, izenda itzazu lau. |
| **4** | 1,00 | Zein dira Espainiako Turismoaren Kalitatearen Sistemaren (SCTE) bi helburuak? Zehaztu, orobat, turismoaren kalitatea ezartzeko bere estrategia sendotzeko jardueretako bi. |
| **5** | 1,00 | Zer da Itourbask? Zein helburu du? Zein dira bere lau zerbitzu nagusiak? |
| **6** | 1,00 | Zer ulertzen da, Itourbask sortu zeneko 279/2003 Dekretuaren arabera, “turismo bulego” eta “turismo informazioa emateko gune” esaten delarik? |
| **7** | 1,00 | Itourbask sortu zeneko 279/2003 Dekretuaren arabera, zein bost alderdi aintzat hartuko dira turismo bulego gisa hari atxikitzeko eskabideak ebaluatzeko? |
| **8** | 1,00 | Zerrenda itzazu Turismoaren erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen 317/1996 Dekretuan jasotzen diren erabiltzailearen lau eskubide. |
| **9** | 1,00 | Azaldu zertan datzan eta nola funtzionatzen duen arbitraia-sistemak, Turismoaren erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen 317/1996 Dekretuaren V. kapituluaren ildotik. |
| **10** | 1,00 | Zer ulertzen da ‘camping’ esaten delarik, Turismoa antolatzen duen 6/1994 Legearen arabera? Zein kategoriatan sailkatzen dira turismo kanpalekuak? |
| **11** | 1,00 | Zein baldintza bete behar ditu eskualde edo zonalde batek turistikotzat jo dadin, Turismoa antolatzen duen 6/1994 Legearen arabera? |
| **12** | 1,00 | Zein 4 egintza dira arau-hauste oso larriak, Turismoa antolatzen duen 6/1994 Legearen arabera? |
| **13** | 1,00 | Zer da Euskal Autonomia Erkidegoko Turismoko Aholku Batzordea? Zerrenda itzazu sortu zeneko 80/1992 dekretuan jasotzen diren berariazko bost zereginetatik hiru. |
| **14** | 1,00 | Izenda itzazu PICTE 2000-2006ren hamar programetatik bost. |
| **15** | 0,70 | Izenda itzazu PICTE 2000-2006 delakoak berariaz Espainian eskaintza eskasa dutela dioen sei produktu turistikoetatik lau. |
| **16** | 1,00 | Nork fundatu zuen gaur egungo Vitoria-Gasteiz eta eman zio forua? Zein urtetan, eta nola deitu zion? Zeinek eman zion hiri titulua Gasteizi, eta zein urtetan? |
| **17** | 0,30 | XX. mendeko zein hamarkadatan erosi ziren Armagintza Museoko funts gehienak? |
| **18** | 0,75 | Zein bost multzo handitan erakusten dira Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoko artelanak, irizpide historiko didaktiko bati jarraiki? |
| **19** | 0,75 | Zein gremiok bultzatu zuen Andre Maria Zuriaren gurtza, eta zein mendetan sustatu zen, horretarako, Andre Maria Zuriaren Kofradia? Zein urtetan koroatu zen, ospe handiz, hiriko erregina gisa? |
| **20** | 1,00 | Izenda itzazu Gasteizko hirigune historikoan kokatutako barrokoaren lau erakusgarri nabarmen. |
| **21** | 1,00 | Zerrenda itzazu Gasteizko hirigune historikoan kokatutako bost museoak. |
| **22** | 1,00 | “4 dorreez” gain, izenda itzazu Gasteizko hirigune zaharrean kokatutako gutxienez hiru eraikin erlijioso historiko. |
| **23** | 1,00 | Klima aldaketaren eta turismoaren inguruko nazioarteko zein bi biltzar ospatu dira gaurdaino, eta zein urtetan? |
| **24** | 1,00 | Merkatuaren segmentazioa. Izenda itzazu kontsumitzaile segmentuek bete behar dituzten bi betebehar orokorrak eta beste bi osagarri. |
| **25** | 0,50 | Zein dira interneteko merkataritza elektronikoaren lau kategoriak? |
| **26** | 1,00 | Zer dira banaketa sistema orokorrak (GDS)? Zerrenda itzazu denbora errealean eskaintzen dituzten zerbitzuetatik lau. |
| **27** | 1,00 | Turismo sektorearen ezaugarria da bere produktuak gehienbat zerbitzuen kategoriaren baitakoak direla eta ez dela produktu unitario bat, hainbat jardueraren elkarketa baizik. Zerrenda itzazu turismo produktua definitzen duen egitate horren bost ondorio. |
| **28** | 1,00 | Zer dira Frontur eta Familitur? Eman itzazu horien izen osoak. Zer informazio jasotzen dute eta zein erakundek argitaratzen ditu? |
| **29** | 0,5 | Zein da nazioarteko turistaren definizioa, Munduko Turismo Erakundearen arabera? |
| **30** | 0,5 | Ondasun baten eskariaren malgutasunaren kontzeptua. |
| **31** | 1,00 | Proiektu turistiko baten eraginak eta ‘esternalidadeak’. Azaldu zen den Kostu Irabazi Analisia (ACB), eta hori aplikatzeko lau urratsak. |
| **32** | 1,00 | Europa biltzar etxeaz eta Goiuri jauregiaz gain, izenda itzazu Arabako beste bost biltzar azpiegitura publiko. |
| **33** | 1,00 | Zein dira turismo erabiltzailearekiko betebehar publikoak, Turismoaren erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen 317/1996 Dekretuaren arabera? |